

"la Caixa" Fundazioak Nafarroan abiarazi du gizarte deialdietarako bere lurralde eredu berria, 900.000 euroz hornitua

- Nafarroako gizarte erakundeek irailaren 6tik 29ra bitarte izanen dute izena emateko aukera lurralde deialdi berri honetan, eta 900.000 euroz hornitua egonen da. Dirutza, beraz, % 160 igo da, 2021ekoarekin alderatuta.
- Proiektuek sei jarduketa esparrutan kokaturik egon beharko dute: adinekoak eta zahartzeak dakartzan erronkak; desgaitasuna edo buru nahasmendua duten pertsonak; osasunaren humanizazioa; pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurkako borroka; gizarteratzea eta laneratzea; eta kulturartekotasuna eta gizarte ekintza.
- «Duela hogeit urtetik baino gehiagotik hona, Gizarte Ekimeneko Proiektuetarako Laguntzen Programaren Deialdiek bultzatu egiten dute beharrik handiena duten pertsonekin zuzenean lan egiten duten erakundeekin lan guztiz beharrezkoa. Orain, lurralde proposamen berriaren bidez, hirugarren sektorearekiko elkarlana areagotzeko borondatea dugu, erakundeetatik eta artatzen ditugun pertsonengandik hurbilago egoteko», azaldu du Marc Simón "la Caixa" Fundazioko zuzendariorde orokorrak.
- "la Caixa" Fundazioaren programak guztira 345.870 euro inbertitu zituen 2021ean Nafarroako erakundeekin 14 proiektutan, eta ia 3.000 onuradun izan ziren. Programa 1999an hasi zenetik, 288 proiektu bultzatu dira Nafarroako Foru Komunitatean eta inbertsioa guztira 5,69 milioi eurokoa izan da. Azken 10 urtean, proiektuek 55.306 pertsonari ekarri diete onura Nafarroan.

Iruñea, 2022ko ekainaren 30a. "la Caixa" Fundazioak Nafarroan aurkeztu du gaur **Gizarte Ekimeneko Proiektuetarako Laguntzen Programaren Deialdien** eredu berria, 2022tik aurrera ez baita estatu mailakoa izanen, **lurraldeen arabera** banatzen hasiko delako.

Planteamendu berriak **lurralde bakoitzeko pertsona** kalteberengana hurbildu nahi ditu **laguntzak, bai eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetara ere**, kasu

"la Caixa" Fundazioko Komunikazio Saila

Pablo Vázquez: 630 180 785 / pvazquez@fundacionlacaixa.org

Prensa Aretoa: <https://prensa.fundacionlacaixa.org/es/>

honetan **Nafarroako Foru Komunitatekoak**, gizartean zabaltzen ari diren beharrei era bidezkoagoan eta berdinzaleagoan erantzuten jarraitzeko.

Nafarroarako diru-hornidura % 160 igo eta 900.000 eurora iritsi da

Nafarroako gizarte erakundeek irailaren 6tik 29ra bitarte izanen dute izena emateko aukera deialdi berri honetan, **eta 900.000 euroz** hornitua egonen da. Dirutza, beraz, **% 160 igo da, 2021ekoarekin alderatuta**

laz, Gizarte Ekimeneko Proiektuetarako Laguntzen 2021eko Programak **345.870 euro** inbertitu zituen guztira **Nafarroako Foru Komunitatean, 14 proiektutan** banatuta, eta **ia 3.000** onuradun izan ziren.

1999tik 2021era, programak **288 proiektu** bultzatu ditu **Nafarroan** eta ekarpena guztira **5,69 milioi** eurokoa izan da. Azken 10 urtean, **55.306 pertsona** artatu dira, proiektu horiei esker.

Gizarte Ekimeneko Proiektuetarako Laguntzen Programaren Deialdien lurralde eredu berria gaur aurkeztu dute prentsaurrekoan, **Iruñeko Planetarioko Auditorioan**. Bertan izan dira **Marc Simón** "la Caixa" Fundazioko zuzendariorde orokorra; **Isabel Moreno** CaixaBankeko Ebro aldeko lurralde zuzendaria; eta **Izaskun Azcona** "la Caixa" Fundazioaren Nafarroako ordezkaria.

«Duela hogeitaz baina gehiagotik hona, Gizarte Ekimeneko Proiektuetarako Laguntzen Programak bultzatu egiten du beharrik handiena duten pertsonekin zuzenean lan egiten duten gizarte erakundeen lan guztiz beharrezkoa. Orain, lurralde proposamen berriaren bidez, hirugarren sektorearekiko elkarlana areagotzeko borondatea dugu, erakundeetatik eta artatzen ditugun pertsonengandik hurbilago egoteko», azaldu du **Marc Simón** "la Caixa" Fundazioko zuzendariorde orokorrak.

Gizarte deialdien berritasun nagusiak 2022an

Urte honetara arte, "la Caixa" Fundazioaren Gizarte Ekimeneko Proiektuetarako Laguntzen Deialdiak estatu mailakoak izan dira. Urte honetatik aurrera, berriz, entitateak guztira **20 deialdi** abiaraziko ditu eta **haietako 18 lurralde mailakoak izanen dira**, hau da, bat autonomia erkidego bakoitzeko eta, beste bat, Ceuta eta Melillarako. Bi deialdik soilik eutsiko diote estatu mailako izaerari,

"la Caixa" Fundazioko Komunikazio Saila

Pablo Vázquez: 630 180 785 / pvazquez@fundacionlacaixa.org

Prensa Aretoa: <https://prensa.fundacionlacaixa.org/es/>

hots, **landa eremuko gizarte ekintzarako deialdiak eta nazioarteko lankidetzarako deialdiak.**

Lurralde eredu berriaz gain, 2022ko deialdiek **era berri batez banatuko dute diru-hornidura, autonomia erkidego bakoitzeko biztanleriarekin bat.** Gainera, Espainiako probintzia guztietan, proiektuen aukeraketa sustatuko da.

Hona hemen 2022ko deialdiek dakartzaten beste berrietasun batzuk:

- **Proiektu bakoitzeko, gehienez 40.000tik 50.000 eurora** bitarteko zenbatekoa eska daiteke.
- Proiektuak aurkezteko formularioa erraztu da, erakunde guztien parte-hartzea errazte aldera.
- Gizarte Ekimeneko Proiektuetarako Laguntzen Programako 2021eko deialdietan **hitzarmen indarduna duten erakundeek eta ordezkariak** aurkezteko aukera izanen dute. Horretarako, 2021ean emaniko laguntzaren % 50 gutxienez justifikatu beharko dute nahitaez.

20 urtetik gorako historia egina duen laguntzen programa

1999 eta 2021 artean, Gizarte Ekimeneko Proiektuetarako Laguntzen Programak **19.000tik gora proiektu** bultzatu ditu eta, haien bidez, **8,7 milioi lagun artatu dira Espainia guztian.** Hori guztia **383 milioi euroko** aurrekontu orokorarekin. Ekimenak, hirugarren sektorearekin batera garatua, zuzenean eragin du parte-hartzaileen bizi-kalitatearen, ongizatearen eta osasunaren hobekuntzan, Espainia osoan.

2022tik aurrera, eredu berriarekin, **lurralde ikuspegian** oinarriturik jarraituko da lanean, orain arteko **jarduketa esparru beretan** eraginda:

❖ Adinekoak eta zahartzeak dakartzan erronkak

Norberaren autonomia sustatzea eta hauskortasunaren nahiz haren efektuen prebentzioa; prebentzioa eta esku-hartzea nahi ez ditugun bakardade egoeretan; detekzioa eta esku-hartzea diru kalteberatasunezko egoeretan, eta detekzioa eta esku-hartzea kalteberatasunezko egoerak edo tratu txarrak izan daitezkeenean.

❖ **Desgaitasuna edo buru nahasmendua duten pertsonak**

Norberaren autonomia sustatzea eta eguneroko bizitzako jarduerak bultzatzea; laguntza psikosoziala ematea desgaitasuna edo buru nahasmendua duten pertsonen, haien familia-ingurunea eta harremanak kontuan harturik; aldi baterako egoitza baliabideak desgaitasuna edo buru nahasmendua duten pertsonentzat; eta irisgarritasun unibertsala eta ekintzak, arrakala digitalari aurre egiteko.

❖ **Osasunaren humanizazioa**

Gizarte eta osasun arreta eta laguntza psikosoziala gaixo daudenei, arreta aringarrietan edo bizitzaren amaieran daudenei, haien eta senideen bizikaltate hobetzeko; eta aldi baterako egoitza baliabideak gaixoendako edota haien senideendako.

❖ **Pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurkako borroka**

Kalteberatasunezko egoeran dauden haur, nerabe eta haien senideen gizarte eta hezkuntza garapena; pobrezian eta bazterturik gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea; laguntza psikosoziala adikzio edota indarkeria egoeran daudenei, bereziki genero indarkeriari dagokionez, eta aldi baterako egoitza baliabideak gizarteratzen ari diren gazte eta helduentzat.

❖ **Gizarteratzea eta laneratzea**

Prestakuntza ematea, desgaitasuna edo buru nahasmendua duten eta talde kalteberen enplegagarritasuna hobetzeko; jendea enpresa arruntean laneratzeko prozesuak bultzatzea, bai eta autoenplegua sustatzeko ere, eta pertsonen lagun egitea laneratze enpresen eta enplegurako zentro berezien testuinguruan.

❖ **Kulturartekotasuna eta gizarte ekintza**

Errespetua eta komunitatearen balioak sustatzen dituzten prozesu komunitarioak; dibertsitatearen kudeaketa eta bitartekaritza komunitarioa; eta adikzioei eta indarkeriari loturiko portaerak hezi eta haiei aurre hartzea.